

Aurkibidea



N A F A R R A

“OSASUNBIDEA: OSASUNAREN ALDE BIDEA EGINEZ” ESTRATEGIA

OINARRIZKO
DOKUMENTUA
(2015-2020)





N A F A R R ♥ A

“OSASUNBIDEA: OSASUNAREN ALDE BIDEA EGINEZ” ESTRATEGIA

OINARRIZKO
DOKUMENTUA
(2015-2020)

“OSASUNBIDEA: OSASUNAREN ALDE BIDEA EGINEZ” ESTRATEGIA

GINARRIZKO DOKUMENTUA
(2015-2020)

“Osasunbidea: osasunaren alde bidea eginez” estrategia.
Oinarrizko dokumentua (2015-2020)

Argitaratzailea: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua

Diseinua eta Maketazioa: Heda Comunicación

Lege gordailua: NA 2426-2017

Webgunea:

www.estrategiaosasunbidea.navarra.es

TALDE IDAZLEA

Oscar Moracho Del Río.

Osasunbidearen zuzendari
kudeatzailea

Alfredo Martinez Larrea.

Eriari Osasun Laguntza emateko
zuzendaria

Lázaro Elizalde Soto.

Osasun Departamentuko (OD) Osasun
arloko Herriartasunaren,
Aseguramenduen eta Bermeen
Zerbitzuaren zuzendaria

Javier Apezteguía Urroz.

Osasun Laguntza Integraturako
zuzendariordea

Isabel Rodrigo Rincón.

Nafarroako Ospitaleguneko
Kudeaketa Klinikoari Laguntzeko
Zerbitzuko burua

M^a Mar Malón Musgo.

Nafarroako Ekialdeko Oinarrizko
Osasun Laguntzaren eta Laguntzaren
Jarraitutasunerako zuzendariordea

LANTALDEA

Fernando Domínguez

Cunchillos. Osasuneko
kontseilaria (OD)

Luis Gabilondo Pujol.

Osasuneko zuzendari
nagusia (OD)

M^a José Pérez Jarauta.

Nafarroako Osasun Publikoaren
eta Lan Osasunaren Institutuko
zuzendari kudeatzailea

Marisa Garcia Mayayo.

Kudeaketa Ekonomikoaren eta
Zerbitzu Orokorren zuzendaria

Esteban Ruiz Álvarez.

Profesionalen zuzendaria

Manolo Carpintero

Navarro. Eriari Osasun
Laguntza emateko zuzendari ohia

Javier Diez Espino.

Oinarrizko Osasun Laguntzako
kudeatzailea

José Ramón Mora

Martínez. Tuterako Osasun
Barrutiko kudeatzailea

Marisa Hermoso de

Mendoza Merino. Lizarrako
Osasun Barrutiko kudeatzailea

Antonio Merino Díaz de

Cerio. Nafarroako
Ospitaleguneko kudeatzailea

Antonio Lopez Andrés.

Farmaziako zuzendariordea

Esther Eraso Goñi.

Langileria eta Lan Harremanetako
zuzendariordea

Borja Azaola Estévez.

Nafarroako Iparraldeko Oinarrizko
Osasun Laguntzaren eta
Laguntzaren Jarraitutasunerako
zuzendariordea

Javier Abad Vicente.

Plangintzarako, Ebaluaziorako eta
Ezagutza Kudeatzeko Zerbitzuko
zuzendaria (OS)

Jesús Berjón Reyero.

Nafarroako Ospitaleguneko
zuzendari asistentziala

Maite Soria Sarnago.

Nafarroako Ospitaleguneko
Osasun Zainketen zuzendaria

Emilia Esandi Álvarez.

Lizarrako Osasun Barrutiko
Zainketa Asistentzialen
Zerbitzuko zuzendaria

Olga Sanz Asín.

Tuterako Osasun Barrutiko zuzendari
asistentziala

Ion Ariceta Iraola.

Nafarroako Ospitaleguneko
Prozesu Kirurgikoen
zuzendariorde asistentziala

Manuel Montesino

Semper. Nafarroako
Ospitaleguneko Prozesu
Anbulatorioen eta
Diagnostikoaren zuzendariorde
asistentziala

Tomás Belzunegui Otano.

Nafarroako Ospitaleguneko
Ospitalizazioko eta Urgentziako
Prozesuen zuzendariorde
asistentziala

Javier Turumbay Ranz.

Osasuneko Informazio Sistemen
Zerbitzuko burua

Nancy Nelly Gonzalo

Herrera. Lizarrako Oinarrizko
Osasun Laguntzaren eta
Laguntzaren Jarraitutasunerako
Zerbitzuko burua

Ana Carmen Jaso López.

Tuterako Oinarrizko Osasun
Laguntzaren eta Laguntzaren
Jarraitutasunerako Zerbitzuko
burua

Bideratzaileak: Rafael

Bengoia Rentería eta Patricia
Arratibel Ugarte SI-Health

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	7
1. ZER DIAGNOSTIKO DU EGUN NAFARROAKO OSASUNAK?	
- ALDAKETARAKO ARRAZOIAK	9
2. NAFARROAKO OSASUN SISTEMAREN ERALDAKETARI EKITEKO PRINTZIPIO NAGUSIAK:	
- ETORKIZUNEKO ERRONKEI HELTZEKO GAITASUNA SORTZEN	12
3. ESTRATEGIAREN DEFINIZIOAREN ELEMENTU GILTZARRIAK ETA HELBURU NAGUSIAK	15
4. "OSASUNAREN ALDE BIDEA EGINEZ" ESTRATEGIAREN ESKU-HARTZE NAGUSIAK	17
- BIZTANLEEN OSASUNA HOBETZEN LEHENTASUNEZ LAGUNTZEN DUTEN ESKU-HARTZEAK	18
- PAZIENTEEN ZAINKETAK ETA ESPERIENTZIA HOBETZEN LEHENTASUNEZ LAGUNTZEN DUTEN ESKU-HARTZEAK	18
- OSASUNBIDEAREN ERAGINKORTASUNA HOBETZEN LEHENTASUNEZ LAGUNTZEN DUTEN ESKU-HARTZEAK	19
- PROFESIONALEN INPLIKAZIOA ETA GOGOBEETZEA HOBETZEN LEHENTASUNEZ LAGUNTZEN DUTEN ESKU-HARTZEAK	19
5. HURRENGO URRATSAK: ESTRATEGIA ABIARAZTEA ETA EGUNERATZEA	21
- BEHARREZKO TESTUINGURUA	21
- ALDIZKAKO EGUNERATZEA	23
1. ERANSKINA: KONTAKIZUN ESTRATEGIKOA	25
2. ERANSKINA: ESTRATEGIA GARATZEKO GIDA-DOKUMENTUAK	27
1. NAFARROAKO OSASUN PLANA, 2014-2020	27
2. MISIOA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK	28
3. PROGRAMA-AKORDIOA	30



AURKEZPENA

Gizarte batek izan dezakeen aberastasunik handiena osasuna da. Osasuna, gainera, aberastasun iturria eta lehen mailako inbertsio soziala da, gizarteko beste funtzioak bultzatzeko gaitasun handia duena. Nafarroak osasun ona izatea ez da bakarrik Osasun Departamentuaren edo Osasunbidearen ardura; izan ere, gure gizartea eratzen duten pertsona eta gizarte-eragile guztiena ere bada.

Osasun sistema eredugarria dugu, urte askotako ahaleginekin, inbertsioekin eta trebetasun profesionalarekin eratu dena. Baina une erabakigarrian gaude, erronka handi baten aitzinean, datozen urteetan jasagarria izanen dela eta hobetuko dela bermatu behar baita. Zahartze eta kronikotasun gero eta handiagoak, itxaropen gero eta indartsuagoak, gizartearen gehiegizko medikalizatzea edo aurrerapen teknologikoen sarrera etengabea (aurrerapen horiek aukera berriak sortzen dituztelarik, nahiz eta eskaria asko handitzen duten eta horri eustea zaila izan). Egoera honen aurrean, hainbat traba daude, gure erantzunen ahalmena eta jasagarritasuna arriskutan jartzen dituztenak: gure ingurune ekonomiko beti mugatua, zainketen eta zerbitzuen zatiketa, beste estamentu batzuekiko koordinaziorik eza, araudiaren zurruntasuna eta gure sistemaren inertzia, erreaktibotasunera eta zerbitzuak ematera bideratzen dena prebentziorantz eta arazoaren benetako ebazpenerantz abiatu beharrean.

Erronka hauei aurre egiteko, premiazkoa da aldaketak sartzeko osasun sisteman. Honek pertsona bakoitzaren eta gizarte osoaren erronka eta konpromisoa eskatzen ditu, aditzean ni pertsonarekin batera gu jokatzeko, baliozko ezer ekartzen ez duten errutina, klixerak, aurreiritzi eta inertiak uztea, eta, osasun gehiago sortzearen, haien lekuan ezartzea paradigma berriak, pazienteak eta haren beharrak gehiago artatzen dituztenak. Horrenbestez, osasun sistema eraberritu behar da, egun ditugun alderdi positibo guztiak erabiliz eraikitzea horretan.

Aldaketak iraupen luzekoa behar du izan, baina mailaz mailakoa, atzerapenik eta arrisku handiko jauzirik gabe. Agiri honetan –eta hemen baino xehetasun handiagoz “Helburuak eta jarduerak” izenburukoan– Osasunbideak abiarazi beharreko jarduerak proposatzen dira, erronka hauei aurre egiteko. Indarraldia 2020 artekoa badu ere, plan hau sortu da bide bati hasiera eman nahirik, hainbat urte gehiagorako norabidea izan dezagun urtero eguneraketak eginez; izan ere, proposatutako aldaketa askok denbora behar dute erabat gauzatzeko. Orobat sortu da berrikuntzak sartu nahirik etengabeko ikaskuntzaren ondorioz, ikaskuntza horrek ahalbidetuko duela kulturaren eta antolaketa aldatzea osasunaren alorreko emaitzak etengabe hobetzeko.

Harro sentitu gaitezke, baina gogoan izanda erronka pizgarri eta zaila dugula: etengabe goi mailan edukitzea eta hobetzea Osasunbidea eta, bereziki, Nafarroako Osasuna eta nafarrena.

Aldez aurretik, mila esker.

Oscar Moracho del Río

Osasunbidea-NOZko zuzendari kudeatzailea



ZER DIAGNOSTIKO DU EGUN NAFARROAKO OSASUNAK? ALDAKETARAKO ARRAZOIAK

Ez gara prest egonen zerbitzuen kopurua handitzeari eta Europako zahartze-tasa eta kronizitate handienetako batetik sortutako kostu ekonomikoari aurre egiteko, gure osasun- eta gizarte-sisteman ez baditugu aldaketa handiak egiten antolamenduari dagokionez.

Nafarroaren datoren hamarkadarako erronka sanitario eta ekonomiko nagusia da Europako eta munduko zahartze-tasa eta kronizitate handienetako bati aurre egitea. Joera horrek patologia kronikoen kopurua handitzea dakar, eta deigarria da bolumenagatik eta aurrera egiteko abiadura azkarragatik:

- Duela zenbait hamarkadatik Nafarroako biztanleria progresiboki zahartu da, eta 65 urtetik gorako biztanleen ehunekoa handiagoa da Estatukoarekin alderatuz (% 18 eta % 16). Halaber, kalkulatzen da adin-tarte hori % 20 handituko dela 2022rako¹.
- OMEren datuen arabera, 3 heriotzatik 2 eritasun kronikoen eragiten dituzte, eta horietako asko prebenitu daitezke. Gure ingurunean osasungarriak ez diren bizi-moduak areagotu dira, hala nola elikadura desegokia, sedentarismoa, osasungarriak ez diren kontsumoak edo estresa ongi ez kudeatzea, eta horrek zenbait eritasun areagotzea eragin du; besteak beste: diabetesa, eritasun bascularrak edo minbizia.

Datozen 8 urteetan gizarte- eta osasun-sektoreek azken 40 urteetan jasan duten inpaktu bera jasanen dute. Horrek esan nahi du gizartea oso azkar zahartzen ari dela. Horren ondorioak guztiok ikus ditzakegu: goraka ari dira multimorbiditatea, eritasun konplexuak edo demenzia senilak, besteak beste.

Halaber, gaur egun osasun sistemak beste erronka konplexu batzuei ere aurre egin behar die:

- Azken aldiko aldaketa sozialen eraginez, pazienteak zorrotzagoak dira eta gehiago eskatzen dute. Era berean, itxaropen handiagoak dituzte eta informazio gehiago dute eskuragarri, horrek beti herritarrak hobeki informatuta egotea ez dakarren arren.
- Alderdi profesionalak ere erronka berriak dituzte: espezialitate handiak areagotzea, rol profesional berriak agertzea, espezialitate batzuetan mediku gutxi egotea edo alderdi administratiboak edo normatiboak gaindituko dituzten pertsonak kudeatzeko sistemei ekiteko beharra.
- Teknologia asistentzialen aurrerakada osasun arloan areagotutako gastuaren % 40 baino gehiago da. Horietako batzuek osasun arloko emaitzak hobetzen badituzte ere, gero eta zailagoa da alde aurretik horien kostua eta eraginkortasuna ebaluatzea, profesionalen beharrezko gaitasuna bermatzea eta berrikuntzak garatu ahala integratzea.

1. Nafarroako Estatistika Institutua



Egoera horiek indarrez egiten diote presioa osasun sistemari, eta argi eta garbi adierazten dute gero eta konplexuagoak eta gero eta garestiagoak diren osasun-eta gizarte-zerbitzuen eskaria modu esponentzian handitzen ari dela.

Hala ere, egoera horri aurre egiteko dugun eredu eta antolaketa asistentziala oso gutxi aldatu da azken urteotan. Nagusiki errektiboa da eritasunarekiko eta ez dago prestatuta osasun laguntzaren beharrak aurreikusteko. Halaber, pazienteak kontsultetara, larrialdietara eta ospitalera heldu arte itxaroten du, eritu aurretik edo okerrera egin aurretik modu proaktiboan esku hartu beharrean.

Azken urteotako osasun arloko diskurtsoaren barnean dagoen arren, oinarrizko osasun laguntzak eta osasunaren sustapenak ez dute protagonismo nahikorik; sistema lerratua dago finantzazio eta ikuspuntu gehienbat teknologiko eta ospitalarioetara.

Testuinguru guztiz desberdinean ezarri ziren osasun sistema planifikatzeko, kudeatzeko, koordinatzeko, finantzatzeko eta ebaluatzeko egungo prozesuak. Testuinguru horretan, eritasun akutuei heldu behar zitzaie eta, hortaz, egitura isolatuetan oinarritutako funtzionamendu-eredua lehenetsi zen (ospitaleak, osasun-zentroak, kontsultategiak eta abar), osasunaren ikuspegi sistemikorik eta tokiko ikuspegirik gabekoa.

Egituren zatikatze horrek berekin ekarri du jarduera klinikoa eta eritasun bakoitzaren laguntza-continuumean pazienteei egiten zaizkien zainketak zatikatzea, eta are gehiago zatikatzen dira behar soziosanitarioekin lotzen direnean.

Azken finean, osasun laguntza garatu genuen antolamendu-eredua eredu zatikatua da gaur egun. Gainera, ez da prebentiboa, ez da bat ere eraginkorra eta askotan ez da segurua. Eredu hau profesionalak eta pazienteak mugatzen ari da, hain zuzen ere espazio, gaitasun eta autonomia berriak eskatzen ari direlarik, garapen-gaitasun osoa bideratzea ahalbidetuko dietenak.

Aurreko guztiari legengintzaldi hasierako Nafarroako abiapuntuko egoera gehitu behar zaio. Egoera hori konplexua zen itxarote-zerrendako pertsona kopuruari eta batez besteko atzerapenari dagokionez, eta, horregatik, hasiera batean kudeatzeko gaitasuna eta egoera hori arintzeko eskuragarri dauden baliabideak lehenetsi dira.

Era berean, egia da bizi izan dugun krisi ekonomiko handiak baliabide ekonomikoak mugatu dituela azken urteotan, eta horren emaitza izan da inbertsio falta, deskapitalizazio teknologiko handia ekarri duena.

Halaber, egungo esparruak eta arau-erregulazioek, lan-arloko alderdiei zein antolamenduaren eta kontratuen arlokoie dagokienez, aukera txikia uzten diete kudeaketaren arloko hobekuntzei eta modu sakonean berraztertu behar dira, osasunaren beharrezko eraldaketak dakartzan erronkei modu bizkor eta eraginkorrean erantzuteko.

Hala ere, aurrerapen zientifikoak, teknologikoak eta datuenak handiak eta etengabeak dira, eta, gaur egun, duela urte batzuk pentsaezinak ziren jarduteko egoeretara garamatzate.

Aldaketa sozial handiek, informazioa eskuratzeko bide gehiago egoteak eta osasunerako hezkuntzaren alorreko aurrerapenak lagundu dute osasunari buruzko erabakietan parte hartzeko jarrera handiagoa duten pertsonak sortzen. Halaber,

pertsona horiek erantzukizun-maila handiagoak dituzte zainketen prozesu pertsonalean eragile gisa engaiatzeko. Aldaketa horiek guztiak positiboak dira, eta osasun sistemak erlazio-modu berriak izan ditzala eskatzen dute.

Gaur egun badaude Nafarroako osasun sistemaren² antolamendu- eta funtzionamendu-ereduaren eraldaketa sakonari erabakitasunez heltzeko moduko baliabide eta tresnak. Eraldaketa horren ondorioz, osasun sistemako profesionalak XXI. mendeko osasun laguntza ematen ahalko dute eta Nafarroako gizartea seguru sentitzen ahalko da demografiaren eta kronizitatearen inpaktu gero eta handiagoari aurre egiteko.

Gainera, Nafarroan eraldaketa-prozesu horri baikortasunez ekiteko onuragarria den egoera bereizgarria dugu: maneiatzeko modukoa den dimentsio geografikoa eta tamaina, biztanleriaren dentsitate egokia, zerbitzuen egitura sendoa, goi-mailako prestakuntza duten profesionalen zuzkidura handia eta osasun arloko azterketen eta emaitzen ibilbide sendo eta egiaztatua.

Laburbilduz:

- Erronka oso handia da eta osasun sistema aurreratu guztiei eragiten die.
- Ez esku hartzearen ondorio argiak: sufrimendua, eraginkortasun gero eta txikiagoa eta egoera eutsiezina ekonomiari dagokionez.
- Nafarroan badaude eraldaketa-prozesu sakonari ekiteko baldintzak:
 - Etorkizunerako erresilientea izanen den osasun sistema eraikitzeko gaitasuna eta motibazioa duten profesionalak.
 - Osasunaren, kulturaren eta demografiaren tamaina ezin hobea aurrera azkar egiteko.
 - Erronken neurria aitortzen duen testuinguru politikoa, epe ertainera konponbideak bilatzeko eta ezartzeko borondate politikoa adierazten duena.
- Herrialde eta eskualde batzuek dagoeneko eraldaketa horri ekin diote, eta gure bidelagunak izan daitezke, haiengandik ikas baitezakegu.

2. Osasun Departamentuak, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak osatzen dute.

NAFARROAKO OSASUN SISTEMAREN ERALDAKETARI EKITEKO PRINTZIOPIO NAGUSIAK: ETORKIZUNEKO ERRONKEI HELTZEKO GAITASUNA SORTZEN

Egoera horren aurrean, Nafarroako Gobernuak erabaki du epe ertainera eraldaketa-estrategia bat hastea, Nafarroako egungo osasun sistema etorkizuneko erronkei heltzeko prestatzeko eta gaitzeko: "OSASUNBIDEA: OSASUNAREN ALDE BIDEA EGINEZ".

Nafarroako osasun sistemak badaki ezin izanen diela erronka guztiei aurre egin herritarren eta gizarte zibilaren babesik gabe. Osasuna ez da osasun sistemaren mende soilik dagoen helburu bat; aitzitik, Gobernuaren eta oro har gizartearen erronka da: herritarrek, profesionalak, elkarteek, alderdi politikoen, tokiko korporazioek, hornitzaileek, irakasleen erakundeek, sindikatuak, gobernu kanpoko erakundeek, elkarte zientifikoak, boluntarioak eta gizarte zibilak zeregin garrantzitsua dute estrategia arrakastatsua izateko eta pertsona osasuntsuen ahalmen osoa garatzeko gizarte osasuntsu batean.

Nafarroako herritarrek funtsezko zeregina dute estrategia hau arrakastatsua izan dadin. Adibidez, bizimodu pertsonal eta ingurune osasungarriagoak ahalbidetuko dute Nafarroako osasun sistemak sustatutako prebentziorako estrategiak sendotzea, eta horrek eragin handia izanen du osasunean.

Era berean, estrategiak profesional guztiak kontuan hartu nahi ditu garatzen has-teko, eta, horregatik, indar berezia egiten du egun Nafarroako osasun sistema osatzen duten profesional guztien inplikazioa eta gogobetetzea bilatzen. Hori lortzeko esku-hartze berriak garatuko ditu estrategiak.

Aurkeztu den eraldaketa-estrategia Nafarroako osasun sistemak eskaintzen dituen osasun zerbitzuak egunez egun hobetzen jarraitzen dituen bitartean abiarazi behar da, eta behar besteko bermeekin honako hauei dagokienez: ekitatea, kalitatea, segurtasuna, eraginkortasuna, egokitzapena eta efizientzia.

Hortaz, datozen urteetan estrategia garatzeko lan-agenda anbizio handikoa da, eta horretarako beharrezkoak dira egun Nafarroako osasun sistema osatzen duten eragile guztien parte-hartze eta elkarlana.

Badakigu agiri honetan proposatu diren aldaketa konplexuak estrategikoak direla epe ertain-luzeko apustuak direlako Nafarroako osasun sistemarentzat. Ziur gaude Nafarroako ondorengo gobernuak herrialdearen egoera demografikoaren larritasuna ulertuko dutela, eta, era berean, ulertuko dutela ez dagoela hemen proposatu diren bideetatik kanpo aukera askorik ez dela sistema publiko unibertsala, kalitatezkoa eta jasangarria bermatzen jarraitu nahi bada.

Hona hemen datozen urteetan Nafarroako osasun sistemaren aldaketa norabidetuko duten printzipio nagusiak:

1. ERRONKEN NEURRIA EZAGUTZEA ETA HORIEI AURRE EGITEKO ZIUR EGOTEA

Nafarroako osasun sistemak dituen erronka nagusiak ezagutzea eta beharrezkoak diren aldaketak eta eraldaketak garatzeko ziur egotea Nafarroa izan dadin horiei aurre egiteko erantzunak abiarazten dituen erreferentziatzako autonomia-erkidegoa.

2. GAUR ARTE LORTU DITUGUN ALDERDI POSITIBOEN GAIANEAN ERAIKITZEA

Dagoeneko dauden eta urte askoan eraiki diren alderdi positibo guztien gainean eraikitzea. Osasunbidearen ibilbide historikoari esker gaur egun oso aldeko egoera dugu erronka berriei aurre egiteko.

3. PROFESIONALENGANDIK AHALIK ETA PARTE-HARTZE ETA ENGAIAMENDU HANDIENAK LORTZEN SAIAITUZ ERAIKITZEA

Osasun sistema osatzen duten profesional guztiengandik ahalik eta parte-hartze eta engaiamendu handienak lortzen saiatuz eraikitzea. Zuzendaritza-taldeak "Zer" galdegaiarekin lotutako alderdien konpromisoa hartuko du eta profesional bakoitza "Nola" alderdien lehentasunezko protagonista izanen da.

4. NAFARROAKO OSASUN SISTEMA OSATZEN DUTEN ERAGILE GUZTIENGANDIK AHALIK ETA PARTE-HARTZE ETA ENGAIAMENDU HANDIENAK LORTZEN SAIAITUZ ERAIKITZEA

Sektorea osatzen duten eragileek eta, bereziki, Nafarroako biztanleekin, pazienteekin eta zainzaileekin harremana dutenek parte har dezaten eta nahas daitezten saiatuz eraikitzea.

5. ZERBITZUEN TAMAINA IZATEA NAFARROAKO BIZTANLEEN BEHARRETARAKO ETA HAIEN OSASUN ARAZOETARAKO EGOKIA

Zerbitzuak egungo eta etorkizuneko beharren arabera planifikatzea, eta, horretarako, oinarritzko laguntza sustatzea, laguntza-maila guztietan sustapena eta prebentzioa gehitzea eta egitura sanitario eta soziosanitarioak integratzea tokiko biztanleak ardatz gisa hartuta.

6. ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZAN OINARRITUTAKO FUNTZIONAMENDU EREDUA ERAIKITZEA

Osasun arlokoak diren zein ez diren erakundeekin lankidetzak-sareak eta itunak ezartzea, proiektua arrakastatsua izan dadin lagundu dezaketenak.

7. ETENGABE IKASTEN ETA HOBETZEN ARI DEN OSASUN SISTEMA ERAIKITZEA

Estatuan zein nazioartean bidaia honetan bidelagun izan daitezkeenak bilatzea eta etengabe ikasteko eta hobetzeko harremanak ehuntzea.

8. GARDENTASUNEAN, GOBERNAMENDU ONEAN, KONTU-EMATEAN ETA ERAGINKORTASUNEAN OINARRITURIK KUDEATUKO DEN OSASUN SISTEMA ERAIKITZEA

Kontuak ematean, gobernamendu onaren eta gardentasunaren printzipioak gizarte osoarekin hartutako konpromiso esplizitua izan behar dira.

9. MALGUTASUNEZ ETA ALDAKETARA EGOKITZEKO GAITASUNEZ ERAIKITZEA (ERRESILIENTZIA)

Malgutasuna eta aldaketara egokitzeko gaitasuna funtsezko gaitasunak dira erronka berriei aurre egiteko, bereziki egoera zail eta konplexuak dituen ingurune aldakor batean. Aldaketa horiek intentsitate handiagoa izan beharko dute antolamendu-sistemetan eta horiek sustatzea ahalbidetzen duen arau-erregulazioan.

10. OSASUN LAGUNTZAREN EREDU BERRIA ERAIKITZEA, BEREIZGARRI HAUEK IZANEN DITUENA

Pertsonen eta populazioen inguruko zerbitzuen integrazioan eta koordinazioan aurrera egitea bilatuko da, haien ingurune zehatzean. Prebentzioa eta detekzio goiztiarra sustatuko dituen ereduak izanen da, profesionalen parte-hartzearen bidez eraikia, erreferentzia izanen dena eria artatzeko eta laguntzeko tenorean, eta etengabe eraginkortasuna eta pertsona bakoitzarentzat eta biztanleriarentzat balio berriak bilatuko dituen. Hori guztia teknologikoki konektatuta eta bideratuta egonen da Nafarroako herritarrak aktiba daitezen eta beren osasunarekiko erantzunkidetasuna senti dezaten.

EREDU HISTORIKOA	ETORKIZUNeko EREDUA
Zerbitzu zatikatuak	Zerbitzu integratuak
Profesionala ardatz	Pazientea eta zaintzailea ardatz
Gaixotasunera bideratua	Osasunera bideratua
Ikuspegi organikoa	Ikuspegia pertsonarengan eta biztanlerian
Pazientea, mendekotasuna duen pertsona	Paziente aktibo eta arduratsuak
Helburu nagusia, sendaketa	Prebentzioa eta osasunaren sustapena ere helburu
Jardueraren ebaluazioa	Emitzen ebaluazioa
Presioa jardueran	Eraginkortasunera bideratuta
Burokrazia eta inertzia	Berrikuntza eta aldaketetara egokitzea
Arau zurrinak	Prozesuetara bideratuta
Erakundea erantzule bakar bezala	Sektore arteko aliantzak eta politikak
Profesionalen administrazioa	Profesionalen kudeaketa
Egituren hierarkizazioa	Partaidetza eta profesionaltasuna
Produktibitatea	Eraginkortasuna eta etengabeko hobekuntza

Etorkizuneko osasun sistemarako bilakaera

ESTRATEGIAREN DEFINIZIOAREN ELEMENTU GILTZARRIAK ETA HELBURU NAGUSIAK

2015-2020 aldirako "OSASUNAREN ALDE BIDEA EGINEZ" estrategia Nafarroako osasun sistemaren hiru erreferentzian oinarrituz egin da: 2014-2020 aldirako Nafarroako Osasun Plana, Misioa, Ikuspegia eta Balioak, eta 2015eko Akordio Programatikoa³, Osasun Departamentuaren ildo estrategikoei jarraituz.

Osasun sistema sendotzeko babes irmoa du, eta hainbat departamentutan izanen du eragina (gizarte eskubideak, etxebizitza, hezkuntza, lana eta abar). Osasun laguntza erresiliente, abangoardista, eraginkor eta segurura zuzenduta dago, orain eta etorkizunean Nafarroako biztanleei osasun laguntzarekin lotutako beharrei erantzuna emanen diona.

**ERREFERENTZIA-
ESPARRUA
OSASUN
DEPARTAMENTUA**

**2014-2020
OSASUN PLANA**

**XEDEA,
IKUSPUNTUA,
BALOREAK**

**ERABAKI
PROGRAMATIKOA**

«OSASUNBIDEA: OSASUNAREN ALDE BIDEA EGINEZ» ESTRATEGIA 1.

**1. AMAIERAKO
HELBURUAK**

POPULAZIOAREN
OSASUNAERA

MEDIKUNTZA HOBEA
ETA ZAINKETA HOBEAK

ERAGINKORTASUNA

INPLIKATUTA ETA
POZIK DAUDEN
PROFESIONALAK

**2. KUDEAKETA
TRESNAK**

DEFINITUTAKO
ESKU-HARTZEAK/
PROIEKTUAK

AURREKONTUA

ARAUDIAREN ETA
KUDEAKETAREN
EGOKITASUNA

**3. EZARTZEKO ETA
BERRIKUSTEKO PLANA**

Ildo horretatik, agerikoa da Nafarroako herritarren osasunarekiko konpromiso politikoa: alde batetik, legengintzaldia hasi zenetik urteko % 5 hazi delako aurrekontua (2017rako 1.040 milioi euro baino gehiago), eta horrek hobetzeko bideari hasiera ematea ahalbidetzen duelako. Beste aldetik, estrategia epe ertainerako egin delako, horrek norabide argi eta irmoa ezartzea ahalbidetzen duelako, erronkei aurre egiteko gai izanen den Nafarroako osasun sistema berria sortzeko helburuarekin.

3. Ikusi 2. eranskina.



Osasunaren aurrekontua ez da gastu gisa soilik ikusi behar; aitzitik, inbertsio sozial estrategiko gisa ikusi behar da, sortzen duen zuzeneko eta zeharkako aberastasunagatik (lanpostuak, hornitzaileak, trakzio-efektua...) zein herritarren gaitasun handiagoagatik eta horien ongizatearen hobekuntzagatik. Hala ere, Osasunbideak badaki aurrekontua igotzea ez dela izan behar "beti egin dena" egiteko; zehaztutako printzipioetan oinarrituz eraiki beharreko antolamendu- eta funtzionamendu-eredua aldatzeko balio behar du.

Ildo horretatik, aurrekontua handitzea eta osasun sistemak bereganatu ditzakeen baliabide gehigarriak⁴ honako hauetara bideratuko dira lehentasunez: azken urteetan galdutako gaitasun teknologikoa berreskuratzea; estrategian jasotako esku-hartzeei laguntzeko beharrezko informazio-sistemak garatzea; irisgarritasuna eta osasun sistemaren eraginkortasuna sustatzeko beharrezkoak diren arta zerbitzuak (oinarritako osasun laguntza, sustapena eta prebentzioa, etxeko ospitalizazioa, kirurgia handi anbulatorioa, eguneko ospitaleak...) hobetzen jarraitzea; eta Nafarroako osasun sisteman beharrezkoa den gaitasuna garatzea, eraldaketa-prozesuari arrakasta izateko ziurtasunaz heltzeko.

Halaber, Gobernuak, estrategia garatzen laguntzeko, helburu nagusiak⁵ lortze aldera beharrezkoak diren arau-aldaketak egiten ditu.

"OSASUNAREN ALDE BIDEA EGINEZ" estrategiaren lehentasunezko helburua da Nafarroako osasun sistemarentzat azken lau helburu nagusi lortzea:

- 1. Nafarroako biztanleen osasuna hobetzea**
- 2. Pazienteen eta esku-hartzearen xede diren biztanleen zainketak eta esperientzia hobetzea**
- 3. Nafarroako osasun sistemaren barne eraginkortasuna hobetzea**
- 4. Nafarroako osasun sistemaren profesional guztien inplikazioa eta gogobetetzea hobetzea**

Lau helburu horiek **osasun sistemen JOMUGA HIRUKOITZ HEDATUA**⁶ dira, eta esparru antolatua eskaintzen dute esku-hartzeak eta ildo estrategikoak garatzeko eta horiek zenbat aurrera egin duten etengabe neurtzeko. Xedea ez da jomugetako bakoitza bereizita garatzea baizik eta esku-hartze eta proiektu bakoitzean ahalik eta inpaktu handiena lortzea, jomuga guztietan edo gehienetan aldi berean.

4. Adibidez, Europar Batasunaren funtsak, estrategia garatzeko konpromisoa hartu nahi duten sektoreko beste eragile batzuen baliabideak, Nafarroako Espezializazio Adimendunerako Estrategia (S3) eta abar.

5. Adibidez, Osasunari buruzko Lege berria.

6. Don Berwick-ek, Tom Nolan-ek eta John Whittington-ek 2008an deskribatu zuten lehenengoz Jomuga Hirukoitza: biztanleen osasuna hobetzea, pazienteen zainketaren esperientzia hobetuz eta biztanle bakoitzeko gastu murriztuz. Institute for Healthcare Improvement (IHI) institutuak hori garatu zuen eta inpaktu handia izan zuen. Orduetik, hainbat estrategia eta planen helburu nagusia izan da, mundu osoko erakunde publiko zein pribatuena, hala nola Eskoziakoak, Ipar Irlandakoak, AEBetakoak eta Kanadakoak, edo Ingalaterra eta Zelanda Berriko abangoardiako erakundeak. Nafarroako strategiaren garapenean behar argia antzeman da "jomuga hirukoitzaren" esparruan osagarria izan den laugarren jomuga garatzeko: Profesionalen parte-hartzea, inplikazioa eta gogobetetzea handitzea (Jomuga Hirukoitz Hedatua).



“OSASUNAREN ALDE BIDEA EGINEZ” ESTRATEGIAREN ESKU-HARTZE NAGUSIAK:

“Osasunaren alde bidea eginez” estrategia osatzen duten esku-hartzeak agiri honetan azaldutako printzipio nagusiak kontuan hartuz ezarri dira, zehaztutako lau helburu nagusiak betetzea lehenetsiz.

Estrategiaren elementu bereizgarri gisa honako hau nabarmendu dezakegu: edozein eritasunen laguntza-continuumean zainketen eta esku-hartzeen zatikatzea gainditzea ahalbidetuko duen osasun laguntza eredia garatzeko ziurtasuna.

Nafarroako osasun sisteman gaitasun berriak garatzeko jartzen du arreta, banakako kudeaketa egin beharrean tokiko biztanleen kudeaketa egiteko, hau da, eskualde edo osasun barruti bakoitzean xede diren gizataldeentzat osasun hobea bilatzeko. Halaber, prebentzioko, detekzio goiztiarreko, jarraipeneko eta lagun egiteko esku-hartze gehiago bilatzen du, eritasunaren memento zorrotzetan maneu eta kudeaketa klinikora lerratutako ikuspuntu baten ordeaz. Hortaz, garrantzi handia dute ohi-tura osasungarriak sustatzeko, eritasunak goiz detektatzeko edo pazienteak ahalduentzeko eta aktibatze esku-hartzeek.

Badakigu antolamenduaren zatikatzearen erronkari aurre egiteko beharrezkoa dela tokiko ingurune zehatzeko kudeaketan oinarritutako eredu berria. Horrek biztanleriaren osasuna hobetzen esku hartzeko gaitasuna duten eragile komunitario guztien interesak helburu baten pean lerrotzeko ahalbidetuko du. Horrela, Lizarrako eta Tuterako osasun-barrutiak sortzeko apustua egin da, lortu nahi dugun laguntza eredia gidatu ahal izateko egiturak izan daitezten.

Halaber, biztanleria oinarritzat hartzen duen plangintzari laguntzeko, Nafarroako osasun sistemak eskualdetze-proiektu bat hasi du, eskualdetzat geografia- eta biztanleria-eremua hartuta, kultura-nortasuna duena. Hain zuzen, nortasun hori erreferentzia da planifikaziorako, baliabideak esleitu eta antolatzeko eta osasun sistema antolatzeko.

Azkenik, nahi dugun eredia eraikitze berebiziko garrantzia du profesionalen aktibazioak eta engaiamenduak. Horregatik, strategiaren esku-hartze asko osasun arloko profesionalen daude zuzenduta.

“Osasunaren alde bidea eginez” estrategia mota askotako helburuek, jardun-lerroek, lan-dimentsioek, proiektuek eta eginkizun espezifikoek osatzen dituzten 12 ildo estrategikotan laburbil daiteke. Osasunbidea dagoeneko horiek garatzen hasi da edo datozen urteetan hasiko eta aztertuko ditu, etorkizuneko erronkei aurre egitea ahalbidetuko dioten eraldaketa- eta aldaketa-prozesuan aurrera egiteko.

Horrela, 2015eko azarotik estrategia bat egin da hausnarketa parte-hartzailearen bidez, Nafarroako osasun sistemak datozen urteetan garatu beharreko jarduerak batera identifikatu eta zehazteko helburuarekin⁷.



Lan horren emaitza gisa, honako hauek dira **"OSASUNAREN ALDE BIDEA EGINEZ"** es-
trategiaren garapenaren erdigunea osatzen duten 12 esku-hartzeak:

BIZTANLEEN OSASUNA HOBETZEN LEHENTASUNEZ LAGUNTZEN DUTEN ESKU-HARTZEAK:

- 1. PERTSONA AKTIBOAK OSASUN SISTEMA PROAKTIBO BATEAN:** Osasunaren sustapena eta norberaren zainketa⁸.
- 2. ESKUAK GARBITZEA BAINO, EZ ZIKINTZEA HOBE:** Prebentzioa eta detekzio goiztiarra.
- 3. PERTSONA AHULENTZAKO LAGUNTZA LEHENESTEA:** Desgaitasunari aurre hartzea eta autonomia sustatzea, osasuna politika guztietan eta ekitatea.

Talde horretan sartzen diren esku hartzeak berariaz diseinatuta daude biztanle-
talde jakinetan jarduteko. Ildo horretatik, bereziki lehenetsi dira Nafarroako he-
riotza-tasa handiena duten eritasunak garatzeko arrisku handiena duten gizataldeak,
biztanle kronikoak edo, alderatuz, ahulenak diren biztanleen taldeak, osasunaren
arloan dauden desparekotasunak murrizteko.

Horien xedea da Osasunbidearen esku hartzeko ahalmena handitzea osasun arazo
bat agertu aurreko egoeretan (sustapena, babesa eta osasun arazoan prebent-
zioa).

PAZIENTEEN ZAINKETAK ETA ESPERIENTZIA HOBETZEN LEHENTASUNEZ LAGUNTZEN DUTEN ESKU-HARTZEAK:

- 4. OSASUN LAGUNTZA INTEGRATZEA PAZIENTE BAKOITZARI BALIO ETA SEGURTASUN HANDIAGOA ES-
KAINZTEKO:** Osasun laguntza integratua, eraginkorra, segurua eta gogobetegarria.
- 5. PAZIENTEAK LEKU ETA MEMENTO EGOKIAN ARTATZEA:** Arintasuna eta itxarote-denborak.
- 6. ESPAZIO SOZIOSANITARIOA BATERA LANTZEA PAZIENTEEN ETA HAIEN FAMILIEN BIZI-KALITATEA
HOBETZEKO:** Plan soziosanitarioa.

Talde honetako esku-hartzeak egungo osasun laguntza eredua optimizatzeraz daude
bideratuta, eta leku egokienean artatze hobereana eskaintzen saiatzen dira. Horrela,
ahal den neurrian, Nafarroako osasun sistemak ematen duen artatze jarduera paziente
bakoitzaren etxean edo egoitzan, oinarrizko laguntzan edo horien ingurune komunita-
rion eman behar da.

Halaber, honako hauek etengabe hobetzen saiatzen da: osasun laguntzaren irisgarri-
tasuna, integrazioa, eraginkortasuna eta segurtasun kliniko, baita osasun laguntza-
rekiko pazienteen gogobetetzea ere.

7. Osasun Departamentuko eta Osasunbideko 22 zuzendarik saio presentzialak eta lehenespren-jarduerak egin zituzten helburuak, planak eta proiektuak identifikatzeko, eta proiektuak lehenetsi zituzten Oinarrizko Osasun Laguntzako 28 zentrok, Nafarroako Osasun Kontseiluak, bost zentroetako Asistentziako Batzorde Teknikoak, Kontsumitzaileen Elkarteak eta honako elkargo hauek: medikuenak, erizainenak, psikologoenak, farmazialarie-
nak eta gizarte-langileenak. Abendutik 2017ko martxora bitartean, 27 zuzendarik estrategia berraztertu eta idatzi zuten.

8. Orain arte jarraitutako estrategiarekin lotutako edukia interpretatzen laguntzeko, aginte-taulan erabilitako ildo estrategikoaren aurreko izena erantsi da.

OSASUNBIDEAREN ERAGINKORTASUNA HOBETZEN LEHENTASUNEZ LAGUNTZEN DUTEN ESKU-HARTZEAK:

- 7. KALITATEAREN ARLOKO BERRIKUNTZA:** Berrikuntza eta etengabeko hobekuntza.
- 8. PROFESIOALEN, PAZIENTEEN ETA HERRITARREN BILAKAERA DIGITALEAN AURRERA EGITEA:** Informazio- eta ebaluazio-sistemak.
- 9. BALIABIDEAK MODU EZIN HOBEAN ERABILTzea OSASUN UNIBERTSALA BERMATZEKO:** Jardueren eraginkortasuna.

Talde honetako esku-hartzeak dauden prozesuak hobetzera edo barne-funtzionamenduko prozesu berriak garatzera bideratuta daude.

Arreta jartzen dute barne-funtzionamendu hori garatzeko eraginkortasunaren hobekuntzak lortzeko, baita jarduketan eraginkortasunean, kalitatean eta segurtasun klinikoan ere. Azken horiek artatze prozesuak sektoreko jardunbide egokietara (eskuragarri dagoen ebidentzia zientifikoaren arabera) gehiago egokitzearen eraginez sortu dira.

PROFESIOALEN INPLIKAZIOA ETA GOGOBEETZEA HOBETZEN LEHENTASUNEZ LAGUNTZEN DUTEN ESKU-HARTZEAK:

- 10. OSASUN LAGUNTZAREN KALITATEA HOBETZEKO PRESTAKUNTZA DUTEN PROFESIOALAK:** Garapen profesionala eta ezagutzaren garapena.
- 11. PAZIENTEEKIKO INPLIKAZIOA DUTEN TALDE PROFESIOALAK:** Inplikazioa, gogobetetzea eta lidergoa.
- 12. PROFESIOALEK KUDEAKETAN PARTE HARTZEA OSASUN LAGUNTZA HOBETZEKO:** Gobernamendu kliniko.

Multzo honetako esku-hartzeak bideratuta daude profesional guztien ahalmena eta inplikazioa hobetzera eta Osasunbidean beste lidergo-molde bat garatzera, bai jarduera klinikoaren garapenari bai kudeaketari dagokienez.

Kultura kliniko, pertsona bakoitza artatzera lerratuagoa, lerrokatu nahi dute kudeaketaren kulturarekin, guztiaren efizientzia arreta jartzen baitu. Horrela, kultura partekatu eta bakar horrek profesionalen eta zerbitzuen antolaketa optimizatuko du, emaitzak etengabe hobetzeko.

Osasun arloko profesionalak, kudeatzaileak eta pazienteak lerrokatzea eta horien baterako lana bilatzen dute, eta ardatz gisa hartzen dute barne-gaitasun handiagoa sortzea, hau da, osasun sistemako profesionalak gaitzea modu ezin hobean antola daitezen.

Esku hartze horiek ezartzeko prozesu gehienak berriak dira eta beste lidergo mota bat behar dute sektorean.

Hortaz, gaur egun Nafarroako osasun sistemak lau helburu nagusiren inguruan antolatutako eta zehaztutako estrategia du. Hori osatzen duten esku-hartzeak bideratuta daude Nafarroako osasun sistemari behar bezainbateko gaitasuna txertatzera aldaketak eragiteko, sustatzeko eta lerrokatzeko etorkizuneko erronkei arrakasta izateko ziurtasunaz aurre egitea ahalbidetuko digun laguntza-ereduan. Geure buruari ezartzen diogun xedea bikaintasuna da, jakin badakigun arren egiteko dugun bidea, zoragarria ez ezik, zaila eta konplexua dela.

LEHENETSITAKO 12 ESKU-HARTZEEN DESKRIKAPEN ZEHATZA ETA "OSASUNAREN ALDE BIDEA EGINEZ" ESTRATEGIA OSATZEN DUTEN GAINERAKO ESKU-HARTZEENA "OSASUNAREN ALDE BIDEA EGINEZ: HELBURUAK ETA JARDUERAK" AGIRIAN DAGO JASOTA⁹.



9. Estrategia osoa 7 helburu, 24 ildo estrategiko, 62 dimentsio eta 130 proiektu baino gehiago dituen agintetulan dago garatuta.

HURRENGO URRATSAK: ESTRATEGIA ABIARAZTEA ETA EGUNERATZEA

Estrategia batek proposatutako esku-hartzeen, ekintzen eta helburuen egokitasunaz gain, hori arrakastaz abiaraztea eta emaitzak lortzea antolaketaren eta gizartearen testuinguruaren mende daude hein handi batean. Beste era batean esanda, aldaketa jasaten duten sare formalek eta, bereziki, informalek eragiten dute mota horretako proiektu batek aurrera egitea ala porrot egitea.

Eraldatzeko aldaketak zailagoak dira lortzen; izan ere, helburua ez da soilik gauzak ongi egitea, baizik eta beste modu batean egitea. Adibidez, eskatzen dute askoz talde-lan gehiago medikuntzan aritzean, edo pazienteekin lankidetzan aritzeko modu berria eta proaktiboagoa. Eginkizun zailena aldaketa-prozesua antolatzea da, hori gertatzen den testuinguruan zuzendaritza-taldeek eta profesionalak arreta jartzen baitute jardueren berehalako edukian.

Horregatik guztiagatik, "Osasunaren alde bidea eginez" estrategian aurrera egiteko beharrezkoa da ohikoa baino plan konplexu eta berritzaileagoa garatzea, estrategia abiarazteari dagokionez. Hau da, Nafarroako osasun-taldearen iritziz, estrategia abiarazteko komeni da ikuspuntu egituratua izatea, estrategia modu ezin hobean abiarazteko helburuarekin.

BEHARREZKO TESTUINGURUA

Estrategia abiarazteko planaren edukia datozen hilabeteetan landuko da, eta horren xedea da Nafarroako osasun sisteman lortu nahi den aldaketari lagunduko dion testuinguru irekia garatzea.

Hauexek dira aldaketarako testuinguru irekia sortzeko helburuarekin Osasunbidean landuko diren **printzipioak**:

1. EGUNEROKO KUDEAKETA EPE ERTAINERAKO KUDEAKETA ERALDATZAILE BATEKIN OSATZEA

Agiri honen aurreko zatian azaldu den bezala, "Osasunaren alde bidea eginez" strategiak eguneroko kudeaketa hobetu nahi du eta, aldi berean, epe ertainera sektoreak dituen erronkak gainditzeko beharrezkoa den eraldaketa hasi. Oro har, gure administrazioek arreta handiegia jartzen dute epe laburrerako kudeaketan, suak itzaltzen. Beharrezkoa da orientazio hori epe ertainerako eta luzerako gaitasun estrategikoekin osatzea. Hortaz, ekintza multzo bat garatu beharko da osagarritasun hori lortzeko eta agenda bikoitz horren kudeaketan eraginkorrak izateko.

2. MIKROKUDEAKETA BIDERATZEA ETA LIDERGOA GEHIAGO BANATZEA

Beste lidergo mota batean oinarritutako arrazoibidea ez da moda bat; hori adierazten du ebidentziak. Tokiko taldeei errazten zaienean beren testuinguruan beharrezkoak diren aldaketei buruzko erabakiak hartzea, emaitzak hobekuntza izaten dira. Beharrezkoa da Nafarroako osasunaren talde betearazleak beharrezko lidergo-kultura identifikatzea eta horretan aurrera egitea. Horrek esan nahi du esparru zentralaren zeregina babestea eta desafio egitea dela, zentroei eta profesionalei nola aldatu eta hobetu ezartzeko tartea utzita.

3. OSASUNeko ZATIKATZE HERMETIKOAK GAINDITZEKO LAN EGITEA

Maila asistentzialen arteko zatikatzeak eta ospitaleen zerbitzuen arteko zatikatzeak eragin negatiboa dute pazienteengan eta emaitzetan, kudeaketari, arlo ekonomikoari zein osasunari dagokienez.

4. PROFESIONAL AITZINDARIEKIN LOTZEA

Nafarroako estrategia berri honetan zehaztu den bezalako aldaketa handinahia lortzeko beharrezkoa da horretan lagundu nahi duten pertsona guztiekin lotzea. Horretarako, osasunean aldaketa egin nahi dutenek sare informal horiek ehundu behar dituzte kideak lortzeko.

5. PROFESIONALEN ETA PAZIENTEEN ARTEKO LANKIDETZAN AURRERA EGITEA

Osasunbideko profesionalek eta zuzendari-taldeek babestuko dute sortzen lagundu dutena. Gainera, profesional guztiek pazienteen beharrak eta itxaropenak kontuan hartu behar dituzte prozesuak modu aktiboan eta parte-hartzailean diseinatzean.

6. KLINIKOEN ETA KUDEATZAILEEN ARTEKO ELKARREKINTZAN AURRERA EGITEA

Arlo kliniko-kudeaketa harremanaren hobekuntza bereziki kritikoa izaten da aldaketa estrategiko eta azkarretan. Bi kulturen arteko lotura eza berriz orientatu behar da eta osasunarentzat komunak diren helburuak bilatu.

7. NAFARROAKO EREMU JAKIN BATZUETAN PROIEKTU PILOTUEN BIDEZ ABIARAZTEA

Aldaketa posiblea dela, eta, emaitzak hobetzeaz gain, aurrera egiteko modurik hoberena dela erakutsi ahal izatea. Posible izanen da eremu jakin batean zuzendariak eta profesionalek maniobratzeko eta erabakitzeko tartea badute, proposatutako helburuak lortzen badira. Ezin dira akatsak zigortu, beharrezkoa baita aldaketari ekiten diotenentzako arrisku pertsonala murriztea. Aldatzen ez saiatzea eta akatsetatik ez ikastea baino ezin dira kritikatu.

8. NAFARROAKO OSASUN SISTEMAREN EGITURA BERRIZ ZEHAZTEA

Egungo egitura kudeaketa-funtzio tradizionalago baterako dago diseinatuta, eta beharrezkoa izanen da hori berriz pentsatzea eta progresiboki egokitzea eraldaketari laguntzeko.

9. ESPARRU POLITIKOAREN KONPROMISOA LANTZEA

Estrategia honetan deskribatutakoaren gisako aldaketa beharrezkoa da Nafarroako osasunaren kalitatea eta jasangarritasuna bermatzeko. Agerikoa da legegintzaldi bat baino gehiago behar duela antolaketa asistentzian finkatzeko. Horregatik beharrezkoa da testuinguru politikoa, Nafarroako alderdi politiko guztiek ulertzea zer dagoen jokoan eta eraldaketa babestea. Horretarako, beharrezkoa da Nafarroako Parlamentuaren errespetua eta babesa lortzea.

Azken finean, printzipio eta jarduketa hauekin aldaketa lortzen lagunduko duen kultura sortu nahi da. Osasuneko kultura anitzek eraldaketarekiko apatia sor dezaketen balioak dituzte. Profesionalek, pazientek eta eragile politikoek lerrokatu beharreko kultura desberdinak eta baliotsuak dituzte.

Bestelako kultura bat progresiboki sortzeak uste batzuei desafio egitea eta horiek aldatzea dakar. Maila guztietako buruak aldaketa kultural horretarako eragileak dira. Hortaz, beharrezkoa da horiek aktibatzea.

ALDIZKAKO EGUNERATZEA

Halaber, estrategiak Osasunbideko zentroentzako eta profesionalentzako gida iraunkorra izan behar du. Horretarako, modu iraunkorren egokitu behar da lortutako helburuen mailara eta ingurunearen eta horren interes-taldeen eskakizun aldakorrerara. Eguneratzea bermatzeko, honako hau proposatu da:

- Lortutako helburuen maila urtero eguneratzea.
- Helburuak berrikusi eta eguneratzea.
- Garrantziko premia normatibo edo teknologikoak gehitzea.
- Planak eta proiektuak gehitzeko egokitasuna edo beharra urtero berrikustea.
- Aurrekontu-baliabideak erabiltzea eta lehenestea.
- Jomuga hirukoitz hedatuaren jomugak eta ekintzak berrikustea.

ERANSKINAK



Aurkibidea



KONTAKIZUN ESTRATEGIKOA

“Gizarte batek izan dezakeen aberastasun handiena osasuna da, terminoaren esanahi osoan”.

Pertsonok organismo handiago baten zelulak bezalakoak gara, eta organismo hori gure komunitatea da.

Hortaz, Nafarroa organismo biziduna da, etengabe aldatzen eta hazten ari dena, egun 640.000 zelulak baino gehiagok –hau da, herritarrek- osatzen dutena. Beraz, pertsona bakoitzak osasun ona izatea funtsezkoa da Nafarroak ere osasun ona izateko.

Eta zein da egin beharreko lehendabiziko pausoa? Bada, pertsona bakoitza bere osasunaren aditu bihurtzea lortzea, zentroak eta zerbitzuak modu logikoan eta arrazionalen erabiltzeko moduko ebazteko gaitasunarekin, hain zuzen. Azken finean, **paziente aktibo** bihurtzea.

Eta Nafarroa izeneko organismo bizidun honetan, milaka pertsona arduradun nahasten dituena, **Osasunbidea – Nafarroako Osasun Zerbitzuak** funtsezko papera du, gure gorputzaren **garuna** eta **bihotza** baita.

GARUNA, zentroen sare zabal eta oso batean oinarritutako sistema eratzeko. Zentroek mota guztietako osasun laguntzak barne hartzen dituzte, eta teknologia moderno eta berritzaileena dute. Beti lehen mailako profesionalen zerbitzura egonen den teknologia. Esperientzia eta ezagutza handiak biltzen dituen taldea.

BIHOTZA, profesionalen talde zabal eta osoak pertsonari lagundu diezaioten beti batera eta modu koordinatuan. Harekin inplikatzeko, baita haren gaitzetan eta haren premietan ere. Enpatiatik, adetasunetik eta eraginkortasunetik laguntza ematea, atzean utzi ahal izateko espezialitate bakoitzaren araberako departamentu hermetikoetan egituratutako eredu zaharkitua.

OSASUNA NORBERARENGAN HASTEN DA

Gure osasun pertsonala zaindu dezakegu eta zaindu behar dugu batez ere dietan, estresaren kudeaketan, erlazio pertsonal eta sozialetan, eta ariketan oinarritutako ohitura osasungarrien bidez. Izan ere, herritar bakoitzaren **lankidetzari/sustapenari** esker, askoz Komunitate osasuntsuagoa lor dezakegu.

Eta hori guztia, gainera, Osasunbidean egiten den etengabeko **prebentzio** lanarekin lagunduta.

Hori gakoetako bat da osasunera doan bidea egiterakoan, bai indibidualki bai taldean. Bide horrek iraunkortasuna eta jarraitutasuna eskatzen dugu, eta noranzko bakarra du: **beti aurrera egitea!**



Horregatik dugu gustuko izenarekin batera dagoen terminoa: **Osasunbidea** (osasunaren bidea).

Izan ere, izen hutsa baino gehiago, asmo argia duen terminoa da. Anbizio handiko kontzeptua da, eta Nafarroako herritar guztiak horretan oinarritu behar dira noranzko zuzenean eraman gaitzan.

Eta inor bidean gera ez dadin –herritarrek, osasun arloko profesionalak, instituzioak, enpresak edo erakundeak izan-, beti gehitu nahi diogu motibatzen gaituen eta gure energia guztia noranzko berean bideratzen lagunduko digun **indar-esaldi** bat:

"OSASUNAREN ALDE BIDEA EGINEZ"

Bidea egitea, bidea eginez ekintza, mugimendua, etengabeko hobekuntza adierazten duen gerundioa da, eta, gainera, inplikatu eta motibatu egiten du. Izan ere, pertsona bakoitza protagonista eta alde aktiboa da osasunarekin lotutako guztitan.

Noranzko berean batera aurrera egitea, ipar berarekin, osasun publikoaren bikaintasunerantz. Hori da Nafarroako herritar guztien osasun ona bermatzeko benetako **bide** eraginkorra.

Osasun bikaina. Osasuna, gorputz eta buru; izan ere, biak daude lotuta eta pertsona bakoitzaren eta gure komunitatearen bizi-kalitatean eragiten dute.

Osasunaren alde bidea eginez; esaldi berean egun Osasunbidea lantzen ari den 4 esparru estrategikoak biltzen dituen indar-idea:

- Osasunaren alde bidea eginez **medikuntza** eta **zainketa hobeak** lortzeko.
- **Nafarroako biztanle guztien** osasunaren alde bidea eginez.
- Osasun **eraginkorragoaren**, alde bidea eginez, sistemaren jasangarritasuna bermatzeko bide gisa.
- **Profesionalen taldearekin** osasunaren alde bidea eginez, horiek inplikaturik eta Osasunbideko kidea izateagatik harro sentiaraziz.

Bidea argia da eta aurrera egiten jarraitzeko eta ez gelditzeko energia eta baliabideak ditugu. **Gure helburua osasuna da**, eta hori beti egonen da gure zerumugan, gu gidatzen, gu adoretzen.

Baina ez dezagun geure burua engainatu; ez da bide erraza, erronkak handiak baitira eta helburua handinahia. Baina, zorionez, zenbat eta handiagoa izan erronka, orduan eta handiagoa da horri aurre egiteko ilusioa. Zorionez, bidea zabala da, oso zabala, guztiok gaudelako bertan, lankidetzan, ahaleginak egiten, urrats sendoekin eta modu jarraikian aurrera eginez Nafarroak beti osasun hobereana izan dezan.

ESTRATEGIA GARATZEKO GIDA-DOKUMENTUAK

Osasun Plana, Misioa, Ikuspegia eta Balioak eta Programa Akordioa zein Osasun Departamentuaren legealdi honetarako ildo estrategikoak dira Nafarroako osasun sistemak legegintzaldi honetan lortu nahi dituen helburu operatiboak zehazteko funtsezko esparruak. Beraz, erreferentziazko dokumentu horiek funtsezkoak izan dira “OSASUNAREN ALDE BIDEA EGINEZ” estrategia garatzeko.

1. NAFARROAKO OSASUN PLANA, 2014-2020

2014-2020 aldirako Nafarroako Osasun Plana 2014ko irailean onartu zuen Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak. Plan hori jarraibide gisa hartu dugu jarduketak herritarren osasun-beharren arabera bideratzeko, eta, halaber, osasun-lehentasunek artatzearen kudeaketaren ardatza osa dezaten tresna edo elementu nagusiak identifikatzeko.

Horrela, Osasun Planak strategiak sustatu eta garatu nahi duen osasun laguntzaren eredu berriaren balioak eta printzipioak azaltzen ditu zehaztasunez:

- Pazientea orientatzea eta haren autonomiarekiko konpromisoa.
- Konpromiso etiko eta soziala.
- Erantzunkidetasuna osasunaren zainketan.
- Sistemaren jasangarritasunarekiko konpromisoa.
- Emaitei begira egotea.
- Kalitate integralaren ikusmoldea (kalitate teknikoa + hautemandako kalitatea + eraginkortasun soziala).
- Laguntza integratua.
- Datuetan oinarritutako jarduera klinikoa.
- Profesionalen etengabe hobetzeko konpromisoa eta inplikazioa.
- Garapen profesionalerako konpromisoa.
- Irisgarritasun unibertsala bermatzen jarraitzea.
- Osasunean emaitzak helburu izatea.
- Biztanleria lehenestea.
- Esku hartzeko estrategia integralak.
- Osasuna politika guztietan.
- Sektore-artekotasuna eta esku-hartze komunitarioa.

- Orientazio soziosanitarioa.
- Erantzunkidetasuna eta parte-hartzea.
- Lehentasunen eta bitartekoen arteko adostasuna.

2. MISIOA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK

Osasun Departamentuaren eta Osasunbidearen gogoeta estrategikoak erreferentzia gisa ezarri zituen honako ardatz orientatzaileak, gaur egun indarrean badaude ere, berrikusi eta eguneratu behar direnak:

- Misioa: zer egin behar dugun, zertarako eta norentzat.
- Ikuspegia: nora iritsi nahi dugun.
- Misioa betetzeko eta Ikuspegia lortzeko behar diren balioak.

MISIOA

Osasun Sistema Publiko unibertsala, jasangarria eta kalitatezkoa bermatzea, erki-degoaren osasun ona sustatzen duena eta herritarren osasun-eskubideei eta -premiei erantzun egokia ematen diena.

IKUSPEGIA

"Osasuna" gobernuko mailarik gorenean kokatu nahi dugu, aktiboki esku har dadin herritarren osasun-mailan "erabakigarriak" diren eta osasun arloan dauden desparekotasunak murrizten dituzten hezkuntza-, kultura-, gizarte-, ingurumen- eta elikadura-politiketan eta abarretan.

Lortu nahi dugu pazienteengan ardazturiko Osasun Sistema Publiko unibertsal erabakitzaile, berritzaile, jasangarri eta parte-hartzailea; eta halaber:

- Osasun-herritartasuna aitortzen diena Nafarroan bizi diren pertsona guztiei, eta bermatzen duena inork ez diola prestazioak jasotzeari utziko baliabiderik ez izateagatik.
- Pazienteei bideratutako osasun laguntza eredu bat garatzen duena.
- Pazienteak eta herritarrak trebatu eta ahalduntzen dituena, osasun arloan dituzten hautatzeko aukerak handitzeko.
- Prozesuak optimizatzen dituena neurtzeko moduko emaitzak lortzeko.
- Kalitatezko laguntza osoa eta integratua ematen duena.
- Profesionalek eta pazienteek aktiboki parte hartzea eta inplikatzera sustatzen duena, prozesuak eta zerbitzuak etengabe hobetzeko.
- Pazienteei balio erantsia dakarkieten eta gizarte-eraginkortasuna frogatzen duten berrikuntza teknologikoak eta antolaketa-aldaketak gehitzen dituena.
- Herritarrek eta profesionalek Sistemaren jasangarritasunarekiko konpromisoa hartzea lortzen duena.
- Erantzukizun pertsonala eta antolatzeko autonomia sustatzen dituena, eta esleitutako baliabideekin bat heldu diren emaitzak eskatu eta aitortzen dituena.
- Publikoki emaitzen kontu ematen duena eta esleitutako baliabide publikoei ahalik eta etekin handiena ateratzen diena.

BALIOAK

Hauexek dira elkartean sustatu eta partekatu nahi ditugun balioak:

- Osasunaren ikuskera positiboa.
- Unibertsaltasuna, ekitatea eta elkartasuna.
- Jardunbide egokiak eta konpromiso etikoa.
- Pazienteen erantzunkidetasuna eta ahalduntzea.
- Kalitatearen ikuskera integrala (eraginkortasuna, gogobetetzea eta efizientzia).
- Herritarrek, profesionalek eta pazienteek parte hartzea.
- Berrikuntza eta etengabeko hobekuntza.
- Profesionalismoa (konpromisoa, autonomia eta inplikazio profesionala).
- Gardentasuna eta emaitzen kontu ematea.

Testuinguru honek argi eta garbi egiten du sustapena eta prebentzioa bultzatzen dituen osasun sistema baten aldeko apustua. Sistema horren ardatza pazienteak dira, artatze maila guztiak integratzen ditu eta herritarren parte-hartzea aintzat hartzen du, irisgarritasuna eta ekitatea bermatzeko. Halaber, ezinbestekoa da profesionalek parte hartzea eta baliabideak zentzuz erabiltzea, osasun sistema publikoaren jasangarritasuna bermatzeko. Gaur egungo testuinguruan osasun sistema publikoaren jasangarritasuna bermatzeko modu onena da osasun laguntza eredu berria bultzatzea, zentzudunagoa, proaktiboagoa eta eskaerara baino gehiago beharrera bideratuta dagoena. Eredu horren ezaugarriak hauexek dira:

PREMIETARA BIDERATUA

Eskaerara beharrean, sistema paziente bakoitzaren benetako premiara egokitzea, laguntza osoa, proaktiboa, diziplina anitzekoa eta pertsonalizatua emanez, premia moten eta mailen arabera: akutuak eta kronikoak eta abar ezberdinduz.

ARINA ETA IRISGARRIA

Artatze-zirkuituak eta -zerbitzuak berriz diseinatzea paziente bakoitzean arreta jartzeko, laguntza irisgarria eta denborari dagokionez egokia bermatzeko helburuarekin, hitzordua hartzeko sistemak hobetzeko, ordu-tegiak hobetzeko, artatze motak dibertsifikatzeko, eta benetako balio erantsirik gabeko pausoak eta zereginak saihesteko. Irisgarritasun unibertsala bermatzea.

KALITATE TEKNIKOA

Kalitate teknikoaren eta segurtasunaren arteko homogeneotasun-maila handiagoa bermatzen duen eredu garatzea, aldagarritasuna murrizten duen ebidentzian oinarritutako jardunbide klinikoarekin.

LAGUNTZA INTEGRATUA

Gaur egungo osasun laguntza jarraitua indartzea eta hobetzea, artatze-prozesuak eta artatze-mailen eta arlo soziosanitarioaren artean partekatutako informazio sistemak integratuz.

ERANTZUKIDETASUNA

Erantzukidetasun-estrategia garatzea osasuna zaintzeari dagokionez, alde batetik, prebentzioko eta osasuna sustatzeko programak indartuz, eta, bestetik, pazienteen eta zaintzaileen informazioa eta gaikuntza hobetuz, zainketan eta osasunaren hobekuntzan inplika daitezten. Kudeaketako zenbait prozesu eta sistema behar dira, pazienteen gogobetetzea ebaluatzeaz gain, haien iritzia kontuan hartzeko aukera ematen dutenak. Osasun sistemak aldatu behar du pazienteekin harremanetan jartzeko modua.

ERAGINKORRA ETA JASANGARRIA

Sistema eraginkorra eta jasangarria garatzea, arrazoizko eskaeran eta baliabideen zentzuzko erabileran arreta jartzen duena eta horiek sustatzen dituen, eta maila egokian erabakitzailea dena.

KONPROMISO PROFESIONALA

Profesional klinikoaren lidergoa sustatzea, hain zuzen ere, kalitatearen ikuskera integralarekiko konpromisoa hartzen dutenena. Ikuskera horrek kalitate teknikoa, hautemandako kalitatea eta pazienteak gaitzeko inplikazio aktiboa barne hartzen ditu.

3. PROGRAMA-AKORDIOA

Egungo gobernuari babesa ematen dioten indar politikoen artean sinatutako programa-akordioa da estrategia egiteko beste gida-dokumentua.

Dokumentu horren sarreran akordioaren printzipioak eta balioak biltzen ditu:

Osasuna giza eskubide bat eta pertsona eta komunitateen bizitzarako funtsezko baliabide bat da, eta, hein handi batean, baldintzatzaile sozialen mendean dago; alegia, zer baldintzatan jaiotzen diren, bizi diren eta lan egiten duten pertsonen, horren araberrakoa da haien osasuna. Egungo krisialdi ekonomikoaren eta hari aurre egiteko ezarritako austeritate-neurrien ondorioz, berdintasunik eza areagotu egin da gizartean eta osasun arloan, eta, horri aurre egiteko, politika ausartak aplikatu behar dira, helburu nagusizat pertsonen osasuna eta ongizatea dutenak.

Badakigunez, osasun sistemek behar bezala funtzionatuko badute, ezinbestekoa da irizpide hauei jarraitu diezaieten: unibertsaltasuna, ekitatea eta elkartasuna, gardentasuna, parte-hartzea, kontu-ematea, eraginkortasuna, zuzentasuna, jardunbide egokiak, etika eta erantzukidetasuna. Ildo horretan, Gobernuak balio horiek guztiak sustatu nahi ditu, Osasunaren Mundu Erakundearen gomendioei jarraituz.

Gure ustez, oinarritako zerbitzu publiko bat da osasuna, eta, hortaz, erakundeek babestu eta sustatu egin behar dute, finantzaketa egokiaren eta gastuaren kontrol eraginkorraren bitartez. Azken batean, osasuna ezin da neurtu errentagarritasun ekonomikoaren ikuspegitik.

Osasun-politikaren helburuak zerbitzuaren kalitatea sustatzea, hari eustea eta osasun sistema publikoa sendotzea izan behar du, eta, horretarako, baliabide publikoak eraginkortasunez kudeatu behar dira, eta zerbitzuen kanpo-kontratazioan eta privatizazioan oinarritutako beste eredu batzuei aurre egin".



Aurkibidea



Aurkibidea

N A F A R R A  A

“OSASUNBIDEA: OSASUNAREN ALDE BIDEA EGINEZ” ESTRATEGIA

OINARRIZKO
DOKUMENTUA
(2015-2020)



Servicio Navarro de Salud
Osasunbidea